**Kudeaketari buruzko txostena**
***Informe de Gestión***

**MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES***

**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.**
***Sociedad Gestora Seed Capital S.A***

"SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOCIEDAD GESTORA DE ENTIDADES DE INVERSION DE TIPO CERRADO S.A" baltzuak 2015. urtean gauzatutako jardueraren oinarrizko ardatzak hauek izan dira:

1.- Funtsen inbertsioak eta desinbertsioak

2.- Funtsen likidezia

3.- Partaidetutako enpresen jarraipena

4.- Beste zenbait gai

## 1.- Funtsen inbertsioak eta desinbertsioak

Enpresa berritzaileak sortu eta abian jartzen laguntzeko zereginean, SEED CAPITAL DE BIZKAIA sozietateak ekitaldi ona izan du, egin dituen inbertsioei dagokienez, gaur egun dugun egoera ekonomiko zaila gorabehera.

Zifrak zehaztuz, hauek dira SEED CAPITAL DE BIZKAIAk urtean zehar egindakoak: 9 proiektutan inbertitu du, guztira, 1.028.332,89 euroko zenbatekoarekin. Zenbateko horretatik,607.000,00 euro ekitaldian aurkeztu eta onartu diren 7 ekimen berrietan erabili dira, eta 421.332,89 euro, berriz, Funtsek partaidetutako enpresa bi bigarrenez finantzatzeko erabili dira.

Bestetik, inbertsio osoaren 1.028.332,89 euroetatik, 621.332,89 € (60,4%) kapital partaidetzan erabili dira eta 407.000,00 €, (39,6%) partaidetza-maileguetan.

Ondorenez, enpresek partaidetza-maileguaren formula finantzaketa egiteko modu gehigarri gisa onartzen dutela berresten digu; hala ere, horrek ez du esan nahi SCBk oinarri berritzaileko enpresa ekimenetan behin-behineko kide eta sustatzaile gisa parte hartzeko duen filosofia pixkana galduko denik.

La actividad de "SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOCIEDAD GESTORA DE ENTIDADES DE INVERSION DE TIPO CERRADO S.A.", durante el año 2015, ha girado en torno a los siguientes ejes fundamentales:

1.- Inversiones y desinversiones de los fondos

2.- Liquidez de los fondos

3.- Seguimiento de las empresas participadas

4.- Varios

## 1.- Inversiones y desinversiones de los Fondos

Siguiendo con su labor de apoyo a la creación y puesta en marcha de nuevas empresas innovadoras, SEED CAPITAL DE BIZKAIA ha cerrado un buen ejercicio en cuanto a inversiones realizadas, teniendo en cuenta la delicada situación económica en la que nos encontramos inmersos.

Concretando en cifras, a lo largo del año SEED CAPITAL DE BIZKAIA ha realizado la inversión en 9 proyectos por un importe total de 1.028.332,89 €. De este importe,607.000,00 euros han sido destinados a 7 nuevas iniciativas presentadas y aprobadas en el ejercicio, mientras que 421.332,89 euros se han invertido en una segunda financiación a dos empresas ya participadas por los Fondos.

Por otro lado, de 1.028.332,89 € de inversión total, 621.332,89 € (60,4%) han sido en participación en capital, y 407.000,00 € (39,6%) en préstamos participativos.

Esto nos confirma la buena aceptación por parte de las empresas del préstamo participativo como forma de financiación adicional, sin que ello conlleve la pérdida progresiva de la filosofía distintiva de SCB como socio temporal e impulsor de iniciativas empresariales de carácter innovador.

Azpimarratu beharra dago, 2014ko irailean eratu bazen ere, 2015eko ekitaldian hasi zela "Seed Capital Bizkaia Mikro SCR Pyme S.A." baltzuaren jarduera inbertitzailea: 5 mikromailegu eman ziren (horiek geroago xehatuko dira).

Es de destacar que si bien se constituyó en septiembre de 2014, es en este ejercicio 2015 cuando ha comenzado la actividad inversora de Seed Capital Bizkaia Mikro SCR Pyme S.A., con la concesión de 5 micropréstamos que se detallarán más adelante.

Horrenbestez, egindako inbertsioen % 59 enpresa sortu berriak dira, eta % 41 finantzaketarako bigarren txandei dagozkie. Proiektu bakoitzaren batez besteko inbertsioa 114.260 eurokoa izan da, hau da, aurreko urteetako batez bestekoa baino txikiagoxea, mikromaileguen kopuru txikiaren eragina dela eta.

Como conclusión, de las inversiones realizadas, el 59% corresponden a empresas de nueva creación, y un 41% corresponden a segundas rondas de financiación. La inversión media por proyecto ha sido de 114.260 €, ligeramente inferior a la media de los años anteriores por la influencia del pequeño importe de los micropréstamos

Desinbertsioei dagokienez, desinbertsio-eragiketa bat erabaki da. Ondoren emango da horren berri zehatzagoa.

En cuanto a desinversiones, se ha acordado una operación de desinversión, cuyo detalle se ofrece a continuación.

## Egindako inbertsioak

## Inversiones realizadas

Inbertsio berri hauek egin dira:

Las nuevas inversiones realizadas han sido las siguientes:

| **ENPRESA / EMPRESA** | **INGRAN ENGINEERING S.L.** |
|---|---|
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Ur-ponpaketarako instalazioak monitorizatzen eta horietan aurrezkia bilatzen dihardauen injeniaritza.<br>Ingeniería dedicada a la monitorización y búsqueda de ahorro en instalaciones de bombeos de agua. |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 200.000,00 € kapitala (%44,62).<br>200.000,00 € de capital (44,62%) |

| **ENPRESA / EMPRESA** | **GLOBAL EFFICIENCY ARANGUREN S.L.** |
|---|---|
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Industria-hondakinen kudeaketa eta balorazioa eta biomasa oinarri hartuta energia berriztagarriak sortzea.<br>Gestión y Valoración de residuos industriales y generación de energías renovables a partir de biomasa. |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 300.000 €, partaidetza-maileguan.<br>300.000 € de préstamo participativo. |

Dagoeneko partaidetuta dauden enpresetan egindako inbertsioak honako hauek izan dira:

Horietako bigarrenak, Histocell S.L.L. izenekoak, “Seed Capital de Bizkaia”ren 100.000,00 euroko partaidetza-mailegua izan zuen, 2014ko ekitaldian amortizatzen bukatu zena:

Las inversiones realizadas en dos empresas ya participadas han sido las siguientes.

La segunda de ellas, Histocell S.L.L., tuvo un préstamo participativo de Seed Capital de Bizkaia de 100.000,00 €, que se terminó de amortizar en el ejercicio 2014:

| **ENPRESA / EMPRESA** | **HERMENEUS WORLD S.L.** |
|---|---|
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Merkataritza elektronikoa.<br><br>Comercio electrónico. |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 21.428,21 €, kapitalean eta lehenago ekarri zenari batuta, Seed-en ekarpen osoa 221.428,21 €-ko kapitala da (15,19%).<br><br>21.428,21 € de capital que sumado a lo aportado antes hacen una aportación total de Seed de 221.428,21 € de capital (15,19%) |

| **ENPRESA / EMPRESA** | **HISTOCELL, S.L.** |
|---|---|
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Bioteknologia. Ehunen ingeniaritza eta terapia zelularra, medikuntza birsortzailea eta konpontzailerako produktu berritzaileak garatzen diharduena.<br><br>Biotecnología. Ingeniería Tisular y Terapia Celular, dedicada al desarrollo de productos innovadores dirigidos a la medicina regenerativa y reparadora. |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 399.904,68 €, kapitalean<br><br>399.904,68 € de capital |

Hauek izan dira mikromaileguetan egin diren inbertsioak:

2015ean, 5 mikromailegu gauzatu dira, finantza-baldintza berekin: 5 urteko epea, 6 hilabeteko gabealdia eta % 5eko interes-tasa, enpresa eta zenbateko hauekin:

Las inversiones en micropréstamos, han sido las siguientes:

Durante 2015 se han formalizado 5 micropréstamos,con las mismas condiciones financieras para todos ellos: un plazo de 5 años, con 6 meses de carencia y un tipo de interés del 5%, con las siguientes empresas e importes:

| **ENPRESA / EMPRESA** | **ZENBATEKOA EUROTAN IMPORTE €** | **JARDUERA / ACTIVIDAD** |
|---|---|---|
| TXANOGORRITXU BEC S.L. | 18.000,00 | Haur Hezkuntzako zerbitzuak. Eguneko haurtzaindegia.<br><br>Servicios de Educación Infantil. Guardería diurna. |
| LUCIARENETXEA S.L. | 25.000,00 | Artisau-arrautza ekologikoak ekoiztu eta merkaturatzea.<br><br>Producción y comercialización de huevo artesano ecológico. |
| PADELAND S.COOP.PEQUEÑA | 25.000,00 | Padel-pistak alokatzea.<br><br>Alquiler pistas pádel. |
| BEEHEALTH ASESORÍA Y COMERCIALIZACIÓN DE PRODUCTOS Y SERVICIOS EN EL ÁMBITO SANITARIO, S.L., | 19.000,00 | Osasun-arloko produktu eta zerbitzuez aholku ematea eta horiek merkaturatzea.<br><br>Asesoría y comercialización de productos y servicios en el ámbito sanitario |
| AB GESTION Y SERVICIOS GETXO S.L. | 20.000,00 | Online etxe-zerbitzuko plataforma.<br><br>Plataforma de servicio doméstico online. |

## Egindako desinbertsioak

2015. ekitaldian desinbertsio hau gauzatu da:

## Desinversiones realizadas

La desinversión formalizada en este ejercicio 2015 ha sido la siguiente:

**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.**
***Sociedad Gestora Seed Capital S.A***

| **ENPRESA / EMPRESA** | **TODOENTRADAS S.L.** |
|---|---|
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Era guztietako ikuskizun eta ekitaldietarako txartelen salerosketan bitarteko izatea, enpresak sortutako plataforma telematiko baten bidez.<br><br>Intermediación en la compra y venta de entradas para todo tipo de espectáculos y eventos, mediante una plataforma telemática creada por la empresa. |
| **INBERTSIOAREN DATA / AÑO DE INVERSION** | 2008 |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 300.000,00 |
| ***DESINBERTSIOA / DESINVERSION*** | 643.890,00 |
| **GAINBALIOA / PLUSVALIA** | 343.890,00 |

## 2.- Funtsen likidezia

## 2.- Liquidez de los Fondos

### 2.1.- I Funtsaren likidezia

### 2.1.- Liquidez Fondo I

Ondorioz, kontuan hartuta egindako kapital ordainketak, "Seed Capital de Bizkaia" Funtsaren baliabide likidoak honela laburbil daitezke:

Teniendo en cuenta los desembolsos de capital efectuados, los recursos líquidos del Fondo “Seed Capital de Bizkaia”, quedarían resumidos de la siguiente manera:

| | Euro / Euros |
|---|---|
| Funtsaren baliabide likidoak 15-12-31n<br>Recursos líquidos del Fondo a 31-12-15 | 3.147.711,96 |

Kopuru horri beste hauek kendu eta gehitu beharko zaizkio:

A lo que habría que añadir y deducir:

**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.**
***Sociedad Gestora Seed Capital S.A***

| | |
|---|---|
| Funtsaren aktibo korrontea 15.12.31n / Activo corriente del Fondo a 31.12.15 | 53.193,60 |
| Funtsaren pasibo korrontea 15.12.31n / Pasivo corriente del Fondo a 31.12.15 | 41.336,86 |
| Enpresetan egindako inbertsioak, txosten hau eman zen egunean onartu zirenak eta gauzatzeke daudenak.<br><br>Inversiones en empresas aprobadas a la fecha de emisión de este informe y pendientes de formalizar | 245.000,00 |

Hortik ondorioztatzen da Funtsari 2.914.568,70 €-ko likidezia geratzen zaiola enpresen inbertsioetan erabiltzeko.

De ésto se deduce que al Fondo le queda una liquidez de 2.914.568,70 € disponibles para inversiones en empresas.

## 2.1.- BI Funtsaren likidezia

Seed Capital Bizkaia Bi Fondo de Capital Riesgo sozietateari dagokionez, 2006ko abenduaren 28an eratu zen, 2.050.000,00 €-rekin.

2008ko ekitaldian 2.970.000,00 €-ko kapital-zabalkuntza egin zen.

2010eko ekitaldian Funtsaren beste zabalkuntza bat egon zen. Bizkaiko Foru Aldundiak egin zuen osorik eta 1.050.000,00 €-koa izan zen.

Ondorioz, kontuan hartuta egindako kapital ordainketak, "Seed Capital Bizkaia Bi" Funtsaren baliabide likidoak honela laburbil daitezke:

## 2.1.- Liquidez Fondo BI

En cuanto a Seed Capital Bizkaia Bi Fondo de Capital Riesgo, se constituyó el 28 de diciembre de 2006, con 2.050.000,00 €.

En el ejercicio 2008 se hizo una ampliación por importe de 2.970.000,00 €.

En el ejercicio 2010 hubo otra ampliación del Fondo suscrita íntegramente por Diputación Foral de Bizkaia por importe de 1.050.000,00 €

Teniendo en cuenta los desembolsos de capital efectuados, los recursos líquidos del Fondo “Seed Capital Bizkaia Bi”, quedarían resumidos de la siguiente manera:

| | Euro / Euros |
|---|---|
| Funtsaren baliabide likidoak 15-12-31n<br>Recursos líquidos del Fondo Bi a 31-12-15 | 2.350.001,63 |

Kopuru horri beste hauek kendu beharko zaizkio:

A lo que habría que deducir:

| | |
|---|---|
| Funtsaren pasibo korrontea 15.12.31n / Pasivo corriente del Fondo Bi a 31.12.15 | 86.269,50 |

Horiek horrela, egindako inbertsioak kontuan hartuta, Bi Funtsak 2.263.732,13 €-ko likidezia du proiektuetan inbertitzen jarraitzeko.

Así pues, teniendo en cuenta las inversiones realizadas, el Fondo Bi tiene una liquidez de 2.263.732,13 € para seguir invirtiendo en proyectos.

## 2.3.- "Fondo de Emprendimiento e Innovación Social FCR Pyme S.A." Funtsaren likidezia

"Fondo de Emprendimiento e Innovación Social FCR Pyme S.A." funtsa, 2014ko urtarrilean eratu zen; hasierako ondarea 1.650.000 eurokoa zen, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eman zituen guztiak, enpresa-bokazioko izaera sozialeko proiektuak finantzatzeko.

Oraindik ez da inbertsiorik egin funts horretan ezein proiektutan; hortaz, 15-12-31n euroko likidezia zuen inbertitzeko.

## 2.3.- Liquidez Fondo de Emprendimiento e Innovación Social FCR Pyme

En cuanto al Fondo de Emprendimiento e Innovación Social FCR Pyme, se constituyó en enero 2014, con un patrimonio inicial de 1.650.000 € aportados por Diputación Foral de Bizkaia, enfocado a la financiación de proyectos de carácter social pero con vocación empresarial.

Todavía no se ha realizado ninguna inversión en proyectos en este fondo, de manera que a 31-12-15 tiene una liquidez de € para invertir.

## 2.4.- "Seed Capital Bizkaia Mikro SCR Pyme S.A." baltzuaren likidezia

"Seed Capital Bizkaia Mikro SCR Pyme S.A." baltzua 2014ko irailaren 23an eratu zen, "Arrisku-kapitaleko baltzua" figura juridiko lez, hain zuzen, mikromaileguen bitartez, oraingo funtsak baino garrantzi txikiagoko enpresa-ekimenei laguntzeko helburuz.

2015ean 5 mikromailegu gauzatu dira, zenbateko osoa 107.000,00 €-koa izan dela.

Baltzu horren hasierako kapitala 1.200.000 €-koa izan zen, eta erdi bana jarri zuten Bizkaiko Foru Aldundiak eta "Seed Capital de Bizkaia FCR Pyme" baltzuak.

2015eko ekitaldian Bizkaiko Foru Aldundiak osorik gehitu zuen SCR horren kapitala 600.000,00 €-tan. Hortaz, kapital-gehikuntza horren ostean, SCR horren kapitala 1.800.000 €-koa zen.

## 2.4.- Liquidez Seed Capital Bizkaia Mikro SCR Pyme S.A

Seed Capital Bizkaia Mikro SCR Pyme S.A. se constituyó el 23 de septiembre de 2014 bajo la figura jurídica de una Sociedad de Capital Riesgo, para apoyar iniciativas empresariales de menor entidad que las de los fondos actuales, mediante la concesión de micropréstamos.

Durante 2015 se han formalizado 5 micropréstamos por importe global de 107.000,00 euros.

El capital social inicial de dicha sociedad fue de 1.200.000 € aportados al 50% por Diputación Foral de Bizkaia y Seed Capital de Bizkaia FCR Pyme.

En el ejercicio 2015 ha habido una ampliación de capital de la SCR suscrita íntegramente por Diputación Foral de Bizkaia por importe de 600.000,00 €, situándose el capital de la SCR en 1.800.000 €.

**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.**
***Sociedad Gestora Seed Capital S.A***

Horiek horrela, egindako inbertsioak kontuan hartuta, "Seed Capital Bizkaia Mikro SCR Pyme S.A." baltzuak 1.696.718,68 €-ko likidezia du proiektuetan inbertitzen jarraitzeko.

Así pues, teniendo en cuenta las inversiones realizadas, Seed Capital Bizkaia Mikro SCR Pyme S.A. tiene una liquidez de 1.696.718,68 € para seguir invirtiendo en proyectos.

## 3.- Partaidetutako enpresen jarraipena

## 3.- Seguimiento de las empresas participadas

Sozietate kudeatzaileak garatutako jardueren artean, jarduera-multzo hau nabarmentzen da: enpresa hautagaiarekin harremanetan jartzea, inbertsio-proiektua era guztietan aztertu eta ikertzea, bideragarritasun-txostena, Batzorde Betearazleak erabakia hartzea eta, ondoren, behin inbertsioa eginda, horren gaineko kontrola eta jarraipena gauzatzea; azken xede gisa, desinbertsioa gauzatzea.

El conjunto de actividades desarrolladas por la Sociedad Gestora se podría sintetizar en la toma de contacto con la empresa candidata, el estudio y análisis en todas sus vertientes del proyecto de inversión, el informe de viabilidad, la toma de decisión que realiza el Comité Ejecutivo y, posteriormente, tras la realización de la inversión, el control y seguimiento de la misma y finalmente, como objetivo último, la materialización de la desinversión.

Partaidetutako enpresak aurreikusi dituen helburuak eskuratzeko jarraipen prozesuari dagokionez, Sozietate Kudeatzaileak hurrengo lerroetan jasotako zereginak burutuko ditu beharrezko betekizunak bete daitezen:

- Administrazio Kontseiluetan parte hartuko du.
- Enpresak egokitzat joko dituen bilera guztietara bertaratuko da.
- Enpresek ezarritako negozio-plana zainduko du.

En el proceso de seguimiento para alcanzar los objetivos previstos por la empresa participada, la Sociedad Gestora vela por el cumplimiento de los requisitos necesarios desde:

- Su participación en los Consejos de Administración.
- Asistencia a cuantas reuniones se consideren oportunas por la empresa.
- La vigilancia del plan de negocio que establecen las empresas.

Kasu gehienetan, oso tamaina txikiko enpresa txiki eta ertainak dira (ETE), eta horien xede nagusiak ekoizpena eta salmenta dira, eta kostatu egiten zaie "Seed Capital de Bizkaia"k kudeaketaren kontrolaz egindako planteamenduak barneratzea. Horregatik, negozioaren oinarrizko informazioa emateko hileko txostenak eskatzen dizkiegu, eta hiruhileko txostenak, urteko kontuen itxierarekin batera.

En la mayoría de los casos, son PYMES de muy pequeña dimensión, donde la producción y la venta son su principal objetivo, y los planteamientos que se les hacen desde "Seed Capital de Bizkaia", sobre control de gestión, son de muy lenta asunción por su parte. Por ello, les exigimos informes mensuales con información básica sobre el negocio e informes trimestrales con el cierre de cuentas anuales.

## 4. Beste zenbait gai

### 4.2.- Langileak

Sozietateak ez du aldaketak nabarmenik izan laginlearen izarian ekitaldian zehar.

### 4.3.- Ingurumena

Sozietateaz ez du garatzen kutsakorra den jarduerarik bere ekonomi jardueretan.

### 4.4.- Norbakarreko Azkzioak

2015eko ekitaldian zehar, Sozietateak ez du burutu operaziorik bere norbakarreko azkzioekin.

### 4.4.- Geroago sortutako gertaerak

Ekitaldia itxi eta gero, urteko kontuen eragin handia duen gertaeraren bat ez da gertatu.

### 4.6.- Ikerketa eta Garapen arloetako jarduerak

Seed Capital baltzuak ez du ikerketa- eta garapen-proiekturik egin eta ez du halakorik egiteko agindu hirugarrenei.

### 4.7.- Finantza-arriskuak kudeatzeko politika

Seed Capital baltzuak ez du finantza-arriskuak bereganatzeko arriskurik.

Ez du eragiketarik egiten nazioartean; beraz, ez du dibisa eragiketen kanbio tasak ekar ditzakeen arriskuak jasateko arriskurik.

### 4.8.- Finantza-tresnak

Entitateak ez du deribaturik kontratatzen, ezta bestelako finantza-tresnarik ere.

## 4.- Varios

### 4.2.- Personal

La Sociedad no presenta variaciones significativas en la dimensión de su plantilla durante el ejercicio.

### 4.3.- Medio ambiente

La Sociedad no realiza una actividad contaminante en su proceder económico.

### 4.4.- Acciones propias

La Sociedad no ha realizado operaciones con acciones propias durante el ejercicio 2015.

### 4.5.- Hechos posteriores

No se ha producido con posterioridad al cierre del ejercicio hecho alguno que afecte significativamente a las cuentas anuales.

### 4.6.- Actividades en materia de Investigacion y Desarrollo

Seed Capital no ha realizado ni encargado a terceros proyectos de investigación y desarrollo.

### 4.7.- Politica de gestion de riesgos financieros

Seed Capital no está expuesta a riesgos financieros.

No opera en ámbito internacional, por lo que no está expuesta al riesgo de tipo de cambio por operaciones con divisa.

### 4.8.- Instrumentos Financieros

La entidad no realiza contrataciones de derivados, ni de ningún tipo de instrumento financiero.